



## Errenta arrakala



MIKEL ZURBANO  
EHU-KO IRAKASLEA

**E**spainiako Estatuaren errentaren banaketaren gainean txostena argitaratu eman berri du Oxfamek, urtero egin ohi duenez. Aurtengo txostenaren goiburua esanguratsua da: *Banaketa desberdina. Ibex 35eko enpresek balioa banatzeko duten modua*. Krisiak desberdintasunak handitu egin dituela berreszten da eta sakontze horretan enpresa handi ugariaren ekarpena erabakiorra izan dela zehazten da txostenean. Izan ere, lehiakortasuna irabazteko aitzakia-rekin mozkin tartea mantendu egin dute soldaten doikuntza gogorraren eta zerga ekarpen eskasaren kaltetan.

Horrela, 2008 eta 2017 urteen artean enpresen etekinak %11,3 igo dira eta, aldiz, soldatek orotara %4,2ko jaitsiera nozitu dute. Aldi berean, enpresa horiek beren akziodunen aldeko jokabide eskuzabala izan dute hauei ordaindutako dibidenduak %16 igo baitituzte. Dibidendu horiek jasotzen dituztenen artean nazioarteko 30 inbertsiogile handien taldea dago, eta sarritan irabazi horiek paradisu fiskaletara igortzen dituzte gainera. Halaber, mozkinen joera gorakorrek ez du zerga ekarpenaren igoera ekarri. Alderantziz, enpresa handiek 2017an aurreko urtean baino %11 gutxiago bideratu zuten estatuaren altzorrera.

Bestalde, enpresa handietako soldaten bilakaera oso desporekoa da maila profesionalaren arabera. 2017an goi kargu-

Oxfamek ongi erakusten duen bezala enpresa handiek sortutako mozkinen parte esanguratsua akziodun handiei dibidenduak ordaintzera bideratu da eta ez hainbeste inbertsio produktibora

dunen irabaziak batez besteko soldata baino bost bider gehiago hazi ziren. Horrenbestez, Ibex 35eko enpresen soldata arrakala izugarria da, esaterako, kargudun garaienak batez besteko soldata baino 132 aldiz gehiago irabazten baitu.

Beraz, enpresa handi horien kudeatzaile eta inbertsiogileek desberdintasunak handiarazten dituzten dinamikak sortzeko negozio eredia bultzatzen dute. Ibex 35eko enpresen irabazien parte nagusia kapitalaren zein zuzendari eta goi kargudunen alde bideratzen dira. Joera horrek handiarazten ditu modu nabarmenean kapitalen eta lanen errenten arrakala, baita soldata arrakala ere, finean, errenta desberdintasuna.

Europar Batasunatik (EB) bultzatu-

tako austeritate politiken logika apurtu egiten du txostenak. Austeritatea eta, batez ere, soldata murrizketa ona omen da enpresen produktibitatea eta lehia posizioa indartzeko. Bada, Oxfamek ongi erakusten duen bezala, enpresa handiek sortutako mozkinen parte esanguratsua akziodun handiei dibidenduak ordaintzera bideratu da eta ez hainbeste inbertsio produktibora.

Txostenak beste topiko nagusi bat lurperatzen du, enpresa bertako eragile guztien onura komuneko erakunde dela, hots, enpresek interes komuna ordezkatzeko dutela. Baina, aipatu den bezala errealtate gordinak erakusten du krisialdian langileek pairatzen dituztela doikuntzak eta hobealdian emaitza onak ez dira modu ekitatiboan banatzen.

Azken buruan, txostenak berak bitxikeriatzat jotzen ditu enpresetako goi kargudunen aparteko irabaziak. Izan ere, irabazi horiek ez dute zerikusirik elite honek egiten duen giza kapitalaren ekarpenarekin edo produktibitateari emandako bultzadarekin. Bitxikeria hori botere erlazioaren gakoari erreparatuta ulertu daiteke, exekutibo eta zuzendari nagusiek beraiek erabakitzen baitute beren soldata maila, eta horrela, zuzentzen dituzten enpresen deskapitalizazioa eta finantza narriadura eragiten dute. ●